



Karmele Perez Urraza da liburu honen egilea, Bilbon jaioa eta egun Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolan Didaktika eta Eskola Antolakuntzaren sailean erakusten duena. Lehen ikastola munduan aritua da eta badu zuzeneko eskarmentua irakasle-ofizioan. Oso hurbiletik bizi izan duenaz ari zaigu, bada, saio honetan.

Gogoeta eta datu kuantifikatu asko dira hemen jaulkitzen dituenak, baina, batez ere, testuliburuak irakaskuntzan duten garrantziaren handia eta euskal hezkuntzako merkatu-sarean sarrera duten argitaletxe bakoitzak lanbideen trataeran erakusten duten jokabidea aztertzen ditu. Ondorioetan ageri da argitaletxeek orokorrean ez dutela beti berdin jokatzeko, ezta ikuspegi bera agertzen ere aldagai desberdinen azalpenean. Estatu-mailakoak eta bertakoak izan, badago alderik batetik bestera. Muga administratiboak gainditu eta, testuliburuaren politika, baldin eragingarria izango bada, bertako testuingurua abiapuntutzat hartuta bideratzea planteatzen du egileak.

Irakaskuntzan irakaslearen autonomiari gero eta leku handiagoa ematen zaiola eta, testuliburuak beren protagonismoa galtzen ari direla? Liburu honetako datuek besterik erakusten dute. Bestalde, lanbideen saila osatzen duten aldagai desberdinei nolako trataera ematen zaien ikusteko, nekez aurkituko du irakurleak grafikoz eta taulez osatutako pantaila hain garden eta horniturik. Gaurko gure hezkuntza errealitatea nolakoa den jakiteko aurrepauso sendoa eskaintzen digu autoreak.



ISBN 849332701-8



9 788493 327019